

Toti Martinez de Lezea sorginei buruz solasean arituko da gaur Altzon

ALTZO. DV. Euskal Herriko historia eta kondairak. Asko eta askori kontzeptu horiek etorriko zaizkio gogora Toti Martinez de Lezearen izena entzutean. Eta ez da harritzekoa, irakurle askoren eskuetatik pasa baitira azken urteetan La Calle de la Judería edo La Herbolera bezalako eleberri historikoak.

Gure herriaren historia modu ezberdin batera kontatzen digu Toti Martinez de Lezeak bere eleberrietan. Horietako zenbaitetan, La Herbolera izenekoan, esate baterako, sorginak aurkezten dizkigu idazleak. Euskal Herriko sorginak deskribatzen dizkigu, nolakoak ziren, zer egiten zuten, eta baita Inkisizioaren aldetik jasan zuten jazarpena ere.

Eta hain zuzen ere, bere eleberrietan hainbeste aldiz aurkitu ditugun sorginei buruz hitz egitera dator gaur Altzora Toti Martinez de Lezea. Aspaldi hasi zen idazlea sorginen gaia lantzen. Berak hainbatetan adierazi duenez, sorginak ez ziren guk buruan ditugun emakume itsusi eta maltzurak. Sorginek ez zituzten sorginkeriak egiten. Idazlearen ustez, XVII. mende inguruan zeuden gosete, gerrate, eta gainerako zoritxarren aurrean, garaiko botereak herritarrak distraitu behar zituen eta horretarako sorginengana bideratzen zuen jendearen begirada.

Itzulpengintza, antzerkia...

Eleberri historikoak idazten hasi aurretik ordea, Gasteizen jaio eta egun Larrabetzun bizi den idazle honek itzultzaile gisa lan egin zuen, eta horrez gain, telebista eta antzerki munduan ere ibili zen.

Antzerkiari dagokionez, ezin aipatu gabe utzi Kukubiltxo antzerki taldea, bere senarrarekin eta Larrabetzuko hainbat gazterekin batera sortu zuena. Talde honekin lankidetzan jardun zuen bost urtetan zehar.

Telebistan ere makina bat lan egin zuen Toti Martinez de Lezeak.

1983/84an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarentzat 40 bideo programa idatzi, zuzendu eta errealizatu zituen. Urte berean eta sail berarentzat, bi liburu idatzi zituen euskal kondaira eta antzerki jardunari buruz. 1986tik 1992ra bitartean, Euskal Telebistarentzat ume eta gazteei zuzendutako 1000 saio baino gehiago sortu, idatzi eta zuzendu zituen.

Hasieran esan bezala ordea, Toti Martinez de Lezearen izena askok eta asko Euskal Herriko kondaira eta historiarekin lotzen dute, eta lotura horren arrazoia diren liburuak 1998tik aurrera idatzi zituen idazle gasteiztarak. La Calle de la Judería izan zen eleberri horietako lehena. Bertan idazleak kristautasunera aldatutako familia judutar baten bizitza kontatzen digu, XV.

mendean Gasteizen kokatua. Hurrengo urtean etorri zen bigarrena, Las Calles de Sancho, Nafarroako Sancho III.aren garaian kokatutako eleberria. 2000. urtean etorri zen arrakasta izugarria izan duen beste eleberri bat, La Herbolera. Urte berekoa dugu La Abadesa ere. Hauen ondoren etorri ziren El Mensajero del rey (2002), Los hijos de Ogaiz (2002) edo La Comunera (2003) bezalako eleberriak.

Saritua

Aipatu bezala, itzulpengintzan eta telebista nahiz antzerkian lan ugari egin arren, 1998. urtetik hona idatzi dituen eleberri historikoek egin dute ezagun Toti Martinez de Lezea irakurleen gehiengoaren artean. Eta idazle lan hori saritua ere izan da. 2000. urtean Zilarrezko Euskadi Saria jaso zuen liburu salduenarengatik Donostiako Liburuaren Azokan. Urtebete geroago, Bilboko Liburuaren Azokan Zilarrezko Luma Saria eman zioten gehien saldu zuen idazlea izateagatik.

Beraz, sorginak, hauen bizimodua eta orain zenbait mende jasan zuten jazarpena ezagutu nahi dituenak, Altzoko Udal Liburutegian du horretarako aukera gaur arratsaldeko 18:30ean.